

## Oskia Agirre Orbegozo



1996an Bibliotekonomia eta Dokumentazioan Diplomatura bukatu, eta 1997an Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campusean hasi nintzen lanean katalogazio lanetan.

2010ean lanpostuz aldatu eta EHUko liburutegian hasi nintzen lanean Gipuzkoako Campusean. Ikasleen formakuntzan aritu nintzen batik bat.

2012an ikasketei ekin nien berriro, eta Informazio eta Dokumentazio Graduaren egokitzapena eskuratu nuen. Ondoren, 2014-15 ikasturtean Dokumentazio Digitalean masterra egin nuen. Doktorego ikasketak egiten dihardut orain.

2020ko otsailean, DOAJen (Directory of Open Access Journals) editore laguntzaile lanetan hasi nintzen, sarbide irekia baita nire doktoregoaren ikergaia.

Gure lanbidean hain ohikoa den bezala, hainbat oposaketa eta lan poltsetarako frogak egin ostean, azkenean Osakidetzan liburuzain plaza lortu eta bertan ari naiz lanean 2021eko ekainetik. Ezagutzaren Kudeaketa Unitatearen arduraduna naiz Arabako ESIan.